| **Obraren proiektua prestatzen parte hartu duten segurtasun eta osasun arloko KOORDINATZAILEAK**<br>COORDINADOR/A(ES/AS) en materia de Seguridad y salud, durante la elaboración del Proyecto de Obra<br>0 | | |
| **Obra egiten parte hartu duten segurtasun eta asasun arloko KOORDINATZAILEAK**<br>COORDINADOR/A(ES/AS) en materia de seguridad y salud, durante la ejecución de la obra<br>0 | | |
| **Obra egiten hasteko aurreikusitako aguna /** Fecha prevista para el comienzo de las obras: | | |
| **Lanen iraupen hurbildu /** Duración prevista de los trabajos: | | |
| **Kontratisten menpeko azpikontratisten eta langile autonomoen kopurua**<br>Número previsto de subcontratistas y trabajadores/as autónomos en la obra dependientes del contratista: 0 | | |
| **Eraikuntza lanetan gehienezko langile kopurua**<br>Número máximo estimado de trabajadores/as en toda la obra: 0 | | |
| **Eraikuntza lanetan segurtasun eta osasun arloko orinarrizko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko, Errege Dekretuaren 1627/1997, II Eranskineko lanak edo ekintzak burutzen ditu.**<br>Realiza trabajos o actividades incluidos en el Anexo II del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción. | BAI / SÍ | EZ / NO |
| **Hala izanez gero, lanak, jarduerak, eragiketak edo gaiak zehaztu.**<br>En caso afirmativo, especificar trabajos, actividades, operaciones o agentes. | | |

**Araba/Álava(e)n, 2017(eko) Azaroaren 24(e)an** Araba/Álava, a 24 de Noviembre de 2017

**Oharrak** / Notas:

**Beiztutako hutsuneetan ez idatzi.**
**Inprenta hizkiz beteko da, idazmakinaz edo boligrafoz.**
**Inprimaki hau Lan-Agirintza eskudunaren egoitzan aurkeztu beharko da.**
No escriba en los espacios sombreados.
Se cumplimentará a máquina o bolígrafo con letras de imprenta.
Este impreso se presentará ante la Autoridad Laboral Competente.

**Laneko Lurralde Ordezkaritza**
Delegación Territorial de Trabajo

**GARRANTZITSUA: Lantokiaren Irekieraren Espediente baten kasuan nahiz Obraren irekieraren espediente baten kasuan, espedientea Lantokia hartzen duen Lurraldeko Ordezkaritzan jasoko da (eta ez Enpresa hartzen duen lurraldekoan)**

# 3. Prebentzio-antolamenduaren modalitatearen komunikazioa (OS-2)

Aukera honen bidez, enpresaren ordezkari batek OS2 komunikazio bat eskatzeko aukera izango du. Hala, *"Komunikazio Berriak→ Prebentzio-antolamenduaren modalitatearen komunikazioa (OS-2)"* aukeratu beharko dugu menuan.




Horretarako, komunikazioa prestatzeko behar den informazio guztia agertuko zaigu, urratsez urrats.

- 0. urratsa. Eskatzailearen datuak
- 1. urratsa. OS2 komunikazioaren datuak
- 2. urratsa. Sinadura.
- 3. urratsa. Laburpena.

Funtzionamendua "Lantokiaren Irekiera" izeneko 2. puntuan azaldutakoaren berdina da ia. Aldatzen den bakarra da ez dela behar dokumentuak aurkeztea. Eta OS2 komunikazioaren Datuen erlaitzean hainbat datu agertuko dira.

## 3.1. OS2 komunikazioaren datuak

Atal honetan '**Irekieraren datuak jaso'** izeneko aukera nabarmendu behar da, 'Irekiera Espediente Zenbakia' izeneko eremuaren eskuinera agertzen dena.



Aukera horrek irekiera bat OS-2 komunikazioarekin lotzeko balio du, eta gainerako eremuak eremu horretara lotu berri den Lantokiaren Irekierari dagokion informazioarekin bete daitezen automatikoki. **Irekieraren datuak behar bezala berreskuratu ahal izateko ezinbestekoa da irekieraren espediente-zenbakia eta hari lotutako IFK/IFZ zenbakia bat etortzea.**

# 4. Kanpoko Auditoretza egin beharrik Ez Izatearen Komunikazioa (OS-3)

Aukera honen bidez enpresaren ordezkari batek OS3 komunikazio bat eskatu ahalko du. Hala, *"Komunikazio Berriak→ Kanpoko auditoretza egin beharrik ez izatearen komunikazioa kontsultatzea (OS-3)"* aukeratu beharko dugu menuan.




Horretarako, komunikazioa prestatzeko behar den informazio guztia agertuko zaigu, urratsez urrats.

- 0. urratsa. Eskatzailearen datuak
- 1. urratsa. OS3 komunikazioaren datuak
- 2. urratsa. Sinadura.
- 3. urratsa. Laburpena.

Funtzionamendua "Lantokiaren Irekiera" izeneko 2. puntuan azaldutakoaren berdina da ia. Aldatzen den bakarra da OS3 komunikazioaren Datuen erlaitzean datu ezberdinak agertuko direla.

## 4.1. OS3 komunikazioaren datuak

Atal honetan ‘Irekieraren datuak jaso’ izeneko aukera nabarmendu behar da, ‘Irekiera Espediente Zenbakia’ izeneko eremuaren eskuinera agertzen dena.



Aukera horrek irekiera bat OS-3 komunikazioarekin lotzeko balio du, eta gainerako eremuak eremu horretara lotu berri den Lantokiaren Irekierari dagokion informazioarekin bete daitezen automatikoki. **Irekieraren datuak behar bezala berreskuratu ahal izateko ezinbestekoa da irekieraren espediente-zenbakia eta hari lotutako IFK/IFZ zenbakia bat etortzea.**

# 5. Zirriborroa

Eskaera-prozesuaren barruko edozer urratsetan gorde daiteke egiten ari garen eskaera, osorik bete beharrik gabe. Baliagarritasun horren xedea zera da, osorik bete gabeko eskaera batean edo gehiagotan ipinitako informazioa gordetzeko aukera ematea erabiltzaileari eta denbora-tarte baten buruan (orduak edota are egunak) berriro heldu ahal izatea. Oso erabilgarria da; izan ere, eremu ugari dituzten galdetegiak izanik, gerta liteke eskaera egiteko garaian informazio guztia eskura ez izatea, eta beste iturriren batean kontsulta egin beharra.

## 5.1. Zirriborroa gordetzea.

Abian den eskaera bat gordetzeko, prozesuko urrats guztietan hartarako izen berarekin ageri den botoia sakatu besterik ez dugu egin behar.




Botoiari eman ostean, ez dago izenik edo deskribapenik ipini beharrik zirriborroari. Sistemak automatikoki identifikatuko du eskatzailearen IFK/IFZ eta zirriborroa gordetako data eta orduaren bidez.

## 5.2. Zirriborroa kargatzea

Aldez aurretik gordetako zirriborro bat kargatzeko, menu nagusira jo behar dugu. Zehazki, «*Komunikazio Berriak→ Lantokiaren Irekiera*» aukeratu beharko dugu. Hau da, Lan Irekieraren eskaera bat egiteko aukera berbera.




Aurrez zirriborro gisa gordetako eskaera bat edo gehiago izanez gero osatzeke, honela agertuko zaizkigu:




Jarraian hiru aukera agertzen dira:

1. **Kargatu zirriborroa**: aukeratutako zirriborroa kargatzeko; datuak gordetako garaian zeuden bezala agertuko dira.
2. **Ezabatu zirriborroa**: sistematik ezabatzeko.
3. **Eskaera berria**: aldez aurretik hasitako zirriborro batekin jarraitu nahi ez badugu, eta beste eskaera bat egin nahi badugu. Eskaerari alta emateko pantailara eramango gaitu sistemak.

## 5.3. Txantiloia

Txantiloiaren funtzionamendua zirriborroaren funtzionamenduaren berbera da. Ezberdintasuna da, kasu honetan, izen bat ipini behar zaiola derrigorrez eta eskaera hori amaitzean ez dela sistematik baztertzen, modu horretan, txantiloi-eskaera nahi bestetan berrerabil daiteke.

# 6. Obra Egikaritzen ari den bitartean, Koordinatzailea Aldatzea.

Aukera honen bidez, enpresaren ordezkari batek obrako koordinatzaile bat aldatu ahalko du. Hala, *“Komunikazio Berriak→Koordinatzailea aldatzea Obra Egikaritzen ari den bitartean”*, aukeratu beharko dugu menuan.




## 6.1. Espedienteak bilatzea

Nahi beste eremu beteko ditugu, bilaketan iragazteko ipinitako parametroen arabera.




Baldin eta “**Bilatu**” botoia sakatzen bada, Lantokien Irekieren bilaketa egiten da aldez aurretik hautatu ditugun bilaketa-irizpideen baitan. Emaitzak bilaketa-pantailan sortutako iragazkia betetzen duten Lantokien Irekierak (Obrakoak) azaltzen dituen zerrenda bat emango du. Hala, espedientea, aurkezpen-data, irekieraren lurraldea, helbidea, enpresa identifikatzeko izena eta dokumentua eta irekiera mota erakutsiko dira.




| Espedientea | Aurkezpen-data | IFK | Sozietate-izena | Probintzia | Udalerria | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 01/2018/58 | 2018/06/28 | 99999990S | CIUDADANO FICTICIO ACTIVO | Asturias | Cangas de Onís | dir e |
| 01/2018/106 | 2018/06/25 | 99999990S | CIUDADANO FICTICIO ACTIVO | Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | c\ Bi |
| 01/2018/100 | 2018/06/18 | 62634876B | fads | Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | fasd |
| 01/2018/99 | 2018/06/18 | 62634876B | fads | Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | fasd |
| 01/2018/98 | 2018/06/18 | A53674347 | CIUDADANO FICTICIO ACTIVO | Asturias | Allande | dir e |
| 01/2017/54 | 2017/08/07 | 99999990S | CIUDADANO FICTICIO ACTIVO | | | direc |
| 01/2017/53 | 2017/08/04 | 44678294N | sinprisasa | | | direc |

Zerrendan nahi dugun irekiera hautatu eta “**Koordinatzailea aldatu**” sakatuta, irekierako obrak egikaritzen diren bitartean une horretan dauden koordinatzaileak erakutsiko dituen pantaila batera joango gara, eta haiek aldatzeko aukera izango dugu.

## 6.2. Koordinatzailea aldatzea

Koordinatzailea aldatzeko pantailan, goialdean, aurretiaz hautatutako irekierarako dauden obrako koordinatzaileak erakusten dituen taula bat agertuko da.

Azpialdean espedientean sartuko den koordinatzailearen datuak sartzeko inprimaki bat erakutsiko da. Behin ‘Identifikazio mota’ eta ‘Identifikazio-zenbakia’ eremuetako datuak

sartuta, '**Koordinatzailea hautatu'** estekaren bidez, koordinatzaileari dagozkion eremu guztiak beteko dira koordinatzaile horrentzat datu-basean dauden datuekin.

Eremu guztiak bete eta aldatzeko koordinatzailea hautatu ondoren, ezinbestekoa da inprimakiaren ezkerraldera, goialdean, dagoen '**Koordinatzailea aldatu**' botoia sakatzea.



# 7. Espedienteak

## 7.1. Espedienteak bilatzea

### 7.1.1. Deskribapena

Funtzio honen bidez erabiltzaileak aukera izango du parte-hartzaile modura agertzen den, hots, bera titular edo ordezkari modura agertzen den espedienteak eskuratzeko.

GARRANTZITSUA: Ordezkaritzan paperean aurkeztutako espedienteak interesdunen eskura izango dira soilik Administraziotik espedientea ireki bada. Aitzitik, modu telematikoan igorritako espedienteak interesdunak igorpen telematikoa egin bezain pronto izango ditu eskuragarri.

### 7.1.2. Lantokiaren Irekiera Kontsultatzea

Hala, *"Espedienteak→ Lantokiaren Irekiera Kontsultatzea"* aukeratu beharko dugu menuan.




Behin espedientea irekita dagoenean eta espediente-zenbakia baldin badago, erabiltzaileak parte hartzen duen espediente guztien bilaketa egin ahal izango du. Esandako espedienteak topatzeko, bilaketa-iragazki bat izango dugu, tankera honetakoa:




Nabarmentzekoak dira eremu eta botoi garrantzitsu hauek:

- **Urtea**. Espedienteak kodifikazioan ageri duten urtearen arabera bilatzeko. Hau da, administrazioaren espediente batek formatu hau izango du: 48/2017/000001. Lehendabiziko bi digituak espedientea izapidetzen duen lurralde-ordezkaritzari dagozkio. (01 = Araba, 20 = Gipuzkoa, 48 = Bizkaia). Hurrengo lau digituak espedientearen urteari dagozkio, eta azkenekoak, berriz, espediente-zenbakia dira, administrazioak berak ipinitako zenbaki korrelatiboa.
- **Zenbakia**: Espedienteak kodifikazioan ageri duten zenbakiaren arabera bilatzeko.

#### 7.1.2.1. Ekarpenak/zuzenketak egin

Aurreko bilaketaren emaitzan dauden zuzenketa edo ekarpena egin botoien bidez, informazioa eskatzen duen edo informazio gehigarria erantsi nahi den espedientera beharrezkoa den informazio edota dokumentazioa gaineratzeko aukera dago.

Botoi horiek sakatzean, 2.atalean deskribatzen ziren urrats berdinak azalduko zaizkigu. Urrats berdinak errepikatu beharko direlarik:

- 0. urratsa. Eskatzailearen datuak
- 1. urratsa. Irekitzeari buruzko Datuak
- 2. urratsa. Dokumentuak aurkeztea.
- 3. urratsa. Sinadura.
- 4. urratsa. Laburpena.

**Ezberdintasun batekin, hots, inprimakietan hautatutako espedientearen informazioa jasoko da edozein eremu aldatzeko aukera izanik Administrazioak eskatu ahal izan duen informazioa eguneratzeko, edo nahi den informazioa gaineratzeko.**

#### 7.1.2.2. Irekiera-fitxa inprimatzea

Sistemak aukera ematen du espedienteko datuak jasotzen dituen pdf fitxategia eskuratzea 'Irekiera-fitxa inprimatzea' botoiaren bidez. Nahikoa izango da emaitzen taulatik espedientea hautatu eta aurreko bilaketaren emaitzan dagoen botoi hori sakatzea.

### 7.1.3. Prebentzio-antolamenduaren modalitatearen komunikazioa kontsultatzea (OS-2)

Hala, *"Espedienteak→ Prebentzio-antolamenduaren modalitatearen komunikazioa kontsultatzea (OS-2)"* aukeratu beharko dugu menuan.




Behin espedientea irekita dagoenean eta espediente-zenbakia baldin badago, erabiltzaileak parte hartzen duen espediente guztien bilaketa egin ahal izango du.

Esandako espedienteak topatzeko, bilaketa-iragazki bat izango dugu, tankera honetakoa:




| Espedientea | Aurkezpen-data | IFK | Sozietate-izena | Probintzia | Udalerria | Helbidea | Mota |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01/2018/45 | | 99999990S | CIUDADANO FICTICIO ACTIVO | Araba/Álava | Amurrio | 22 | Aurrez aurrekoa |
| 01/2018/35 | 2018/06/18 | 62634876B | fads | Araba/Álava | Vitoria-Gasteiz | fasd | Telematikoa |
| 01/2018/34 | 2018/06/18 | 99999990S | CIUDADANO FICTICIO ACTIVO | Asturias | Cangas de Onís | dir emp | Telematikoa |
| 01/2018/33 | 2018/06/18 | 99999990S | CIUDADANO KANE | Araba/Álava | Alegría-Dulantzi | DOMICILIO | Aurrez aurrekoa |

Lehenengo orrialdea Aurrekoa 1 orrialdetik 1 Hurrengoa Azken orrialdea 10 1 - 4(e)tik 4 erakusten

Nabarmentzekoak dira eremu eta botoi garrantzitsu hauek:

- **Urtea**. Espedienteak kodifikazioan ageri duten urtearen arabera bilatzeko. Hau da, administrazioaren espediente batek formatu hau izango du: 48/2017/000001. Lehendabiziko bi digituak espedientea izapidetzen duen lurralde-ordezkaritzari dagozkio. (01 = Araba, 20 = Gipuzkoa, 48 = Bizkaia). Hurrengo lau digituak espedientearen urteari dagozkio, eta azkenekoak, berriz, espediente-zenbakia dira, administrazioak berak ipinitako zenbaki korrelatiboa.
- **Zenbakia**: Espedienteak kodifikazioan ageri duten zenbakiaren arabera bilatzeko.

### 7.1.3.1. Ekarpenak/zuzenketak egin

Aurreko bilaketaren emaitzan dauden zuzenketa edo ekarpena egin botoien bidez, **informazioa eskatzen duen edo informazio gehigarria erantsi nahi den**

**espedientera beharrezkoa den informazio edota dokumentazioa gaineratzeko aukera dago.**

Botoi horiek sakatzean, 3.atalean deskribatzen ziren urrats berdinak azalduko zaizkigu. Urrats berdinak errepikatu beharko direlarik:

- 0. urratsa: Eskatzailearen datuak
- 1. urratsa: OS2 komunikazioaren datuak
- 2. urratsa: Sinadura.
- 3. urratsa: Laburpena.

Ezberdintasun batekin, hots, inprimakietan hautatutako espedientearen informazioa jasoko da edozein eremu aldatzeko aukera izanik Administrazioak eskatu ahal izan duen informazioa eguneratzeko, edo nahi den informazioa gaineratzeko.

### 7.1.4. Kanpoko Auditoretza egin beharrik Ez Izatearen Komunikazioa Kontsultatzea (OS3)

Hala, *"Espedienteak→ Kanpoko Auditoretza egin beharrik Ez Izatearen Komunikazioa Kontsultatzea (OS-3)"* aukeratu beharko dugu menuan.




Behin espedientea irekita dagoenean eta espediente-zenbakia baldin badago, erabiltzaileak parte hartzen duen espediente guztien bilaketa egin ahal izango du. Esandako espedienteak topatzeko, bilaketa-iragazki bat izango dugu, tankera honetakoa:




Nabarmentzekoak dira eremu eta botoi garrantzitsu hauek:

- **Urtea**. Espedienteak kodifikazioan ageri duten urtearen arabera bilatzeko. Hau da, administrazioaren espediente batek formatu hau izango du: 48/2017/000001. Lehendabiziko bi digituak espedientea izapidetzen duen lurralde-ordezkaritzari dagozkio. (01 = Araba, 20 = Gipuzkoa, 48 = Bizkaia). Hurrengo lau digituak espedientearen urteari dagozkio, eta azkenekoak, berriz, espediente-zenbakia dira, administrazioak berak ipinitako zenbaki korrelatiboa.
- **Zenbakia**: Espedienteak kodifikazioan ageri duten zenbakiaren arabera bilatzeko.

### 7.1.4.1. Ekarpenak/zuzenketak egin

Aurreko bilaketaren emaitzan dauden zuzenketa edo ekarpena egin botoien bidez, informazioa eskatzen duen edo informazio gehigarria erantsi nahi den espedientera beharrezkoa den informazio edota dokumentazioa gaineratzeko aukera dago.

Botoi horiek sakatzean, 4.atalean deskribatzen ziren urrats berdinak azalduko zaizkigu. Urrats berdinak errepikatu beharko direlarik:

- 0. urratsa: Eskatzailearen datuak

- 1. urratsa: OS3 komunikazioaren datuak
- 2. urratsa: Sinadura.
- 3. urratsa: Laburpena.

Ezberdintasun batekin, hots, inprimakietan hautatutako espedientearen informazioa jasoko da edozein eremu aldatzeko aukera izanik Administrazioak eskatu ahal izan duen informazioa eguneratzeko, edo nahi den informazioa gaineratzeko.

# 8. Egoitza elektronikoa: “Nire Karpeta”.

Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa (https://www.euskadi.eus/y22-home/eu) plataforma digital bat da, eta, bertatik, herritarrak Eusko Jaurlaritzarekin izapideak egin eta kontsultatu ahal izango ditu. Zehazki, egoitza horren barnean, bada “*Nire Karpeta*” izeneko atal bat. Bertan espediente bakoitzarekin lotutako parte-hartzaile guztiek Administrazioaren komunikazioak jasoko dituzte izapide ezberdinak jaso eta prozesatu direla adieraziz.




Garrantzitsua da adieraztea “*Nire Karpeta*” atalean ageri diren esteken bidez sailaren aplikazio telematikora jo ahal izango dugula (AB04A) egin beharreko izapideak egiteko, eskuliburu honetan azaldu dugun moduan.

“*Nire Karpeta*” atalera sartzeko ezinbestekoa da aldez aurretik identifikatzea egiaztatzeko metodo hauetako baten bidez:


Eusko Jaurlaritzak / Gobierno Vasco solicita su autenticación.
Seleccione cuál de los siguientes medios identificación desea utilizar:
B@k Q
Usuario, contraseña y juego de barcos
(coordenadas)
C
Certificados Digitales
(si tiene tarjeta/ token insértelo antes de acceder)
cl@ve PIN
Cl@ve PIN
cl@ve
Cl@ve Permanente
Certificado de empleado público en la nube
(usuario, contraseña y código de verificación)
Cancelar

Erabiltzailea behar bezala identifikatu ostean, hasierako orria agertuko zaigu:




Eskura diren aukera guztietatik, Lantoki/Obren Irekieren aplikazioarekin loturaren bat dutenak kolore ezberdinetan adierazi dira.

- Gorriz: Gorriz markatutako atalean barnean (Espedienteak) erabiltzaileak espediente jakin batzuk ikusiko ditu soilik, hain zuzen, bera Euskal Herri Administrazioarekin irekita duen edozein administrazio-prozedurako espedienteen eskatzaile modura agertzen denean. Dena dela, parte-hartzaile guztiek izango dute espedientearen xehetasunetara, dokumentuetara eta abarretara sartzeko aukera, AB04A aplikazioaren bidez

- Horiz: Horiz markatutako atalean (Jakinarazpenak) Administrazioak igorri dizkion jakinarazpenak ikusiko ditu erabiltzaileak.

## 8.1. Espedienteak bilatzea

Baliagarritasun honen bidez herritarrak aukera izango du espediente jakin batzuk bilatzeko, hain justu, **konektatutako erabiltzailea haren eskatzaile modura agertzen dutenak.**




### 8.1.1. Espedienteak

Atal honetan, izapidetze-egoeraren arabera antolatuta agertuko dira espedienteak.




Baldin eta **Dokumentuak atxiki** botoia sakatzen bada, (AB0A) saileko aplikaziora birbideratuko da erabiltzailea dokumentazioa gaineratu /zuzentzeko.

## 8.2. Komunikazioak

## 8.3. Komunikazioak

Komunikazioak Nire kudeaketak atalaren menuko aukeraren bidez irakur daitezke zuzenean. Atal horretan komunikazio telematikoen hartzaile modura agertzen diren erabiltzaileek aukera izango dute Administrazioak komunikatzea egokitzat jotako izapide ezberdinen berri emanez Administrazioak igorritako komunikazio guztiak kontsultatzeko.

**GARRANTZITSUA: Jakinarazpenak eta komunikazioak ez dira gauza bera. Jakinarazpenek hartu-agiria eskatzen dute; komunikazioek, ordea, ez. Gure kasuan, eskatzaileari irekiera-espediente bat (OS2 edo OS3 espediente bat) zuzentzeko eskakizunak JAKINARAZTEN zaizkion soilik. Gainerako komunikazioak, enpresariari os2 edo os3 dokumentua aurkezteko premia gogoraraztekoa kasu, komunikazio modura igortzen dira eta ez dute hartzailearen aldetiko hartu-agiririk eskatzen.**

Komunikazioek gertakizun hauetako edozein izan dezakete aipagai:

- OS2 komunikazioa
- OS2/OS3 komunikazioa




Esteka sakatzean komunikaziora bertara sartuko gara, komunikaziora atxikitako dokumentuen zerrenda bat izango duena.




## 8.4. Jakinarazpenak

Jakinarazpenak Nire Karpeta atalaren menuko aukeraren bidez irakur daitezke zuzenean. Atal horretan komunikazio telematikoen hartzaile modura agertzen diren erabiltzaileek aukera izango dute Administrazioak komunikatzea egokitzat jotako izapide ezberdinen berri emanez Administrazioak igorritako jakinarazpen guztiak kontsultatzeko.

**GARRANTZITSUA: Jakinarazpenak eta komunikazioak ez dira gauza bera. Jakinarazpenek hartu-agiria eskatzen dute; komunikazioek, ordea, ez. Gure kasuan, eskatzaileari irekiera-espediente bat (OS2 edo OS3 espediente bat) zuzentzeko eskakizunak JAKINARAZTEN zaizkion soilik. Gainerako komunikazioak, enpresariari os2 edo os3 dokumentua aurkezteko premia gogoraraztekoa kasu, komunikazio modura igortzen dira eta ez dute hartzailearen aldetiko hartu-agiririk eskatzen.**

**Jakinarazpen baten hartu-agiria bidaltzeko, ez dago sinadura digitalaren beharrik. «Ikusi jakinarazpena» botoiari emanda, sistemak automatikoki bidaliko du hartu-agiria, eta haren egoera automatikoki eguneratuko du «Nire kudeaketak» plataforman eta sailaren aplikazioan.**

Jakinarazpenek gertakizun hauetako edozein izan dezakete aipagai:

- **Lantokiaren Irekiera-espediente bat Zuzentzeko Eskakizuna.**
- **OS2 espediente bat Zuzentzeko Eskakizuna.**
- **OS3 espediente bat Zuzentzeko Eskakizuna.**




Irudiak OS2 espediente bati buruzko eskakizun baten jakinarazpena islatzen du.

Jakinarazitako egintzen garrantzia ikusirik, ezinbestekoa da enpresaren ordezkariak/titularrak esandako jakinarazpenak irakurri izanaren berri uztea; hau da, hartu izanaren agiria sortzea. Horretarako, nahikoa da jakinarazpenera sartzeko estekan sakatzearekin.




**Jakinarazpena Deskargatzea**: Administrazioak igorritako jakinarazpenaren ofizioa deskargatzeko aukera ematen du.

**Egiaztagiria Deskargatzea**: jakinarazpena eskuragarri ipini izanaren egiaztagiria deskargatzeko aukera ematen du.

Eta, jakina, eskakizuna bera deskargatzeko aukera ematen du:

**OSALAN**
**Laneko segurtasun eta**
**Osasunerako Euskal Erakundea**
**Instituto Vasco de Seguridad y**
**Salud Laborales**

**Arabako Lurralde Zentroa**
**Centro Territorial de Alava**

**Urrundi 18 (Betoño Poligonoan)**
**01013 Vitoria-Gasteiz**
**Tlf.: 945.01.68.00/ Fax: 945.01.68.01**
**Email: osalancatga@ej-gv.es**

**ADMINISTRAZIOARENTZAKO JAKINARAZPENA, PREBENTZIOA ANTOLATZEKO MODUAREN BERRI EMATEKO ETA ARRISKUEN EBALUAKETA ETA AUDITORETZA EGIN IZANA JAKINARAZTEKO**

COMUNICACIÃ#N A LA ADMINISTRACIÃ#N DE LA MODALIDAD DE ORGANIZACIÃ#N PREVENTIVA Y DE REALIZACIÃ#N DE EVALUACIÃ#N DE RIESGOS Y DE AUDITORÃ#A

**ERREF/REF: 01-2017-00030**

Prebentzioa Antolatzeko Modua eta Arriskuen Ebaluazioa eta Auditoretza egin izana jakinarazteko **2017/12/14**an Lurralde Ordezkaritza honetan aurkeztutako aldez aurreko abisua, **DOMI** (**Alegría-Dulantzi**) helbidean egiten ari diren lanei buruzkoa, dela eta, honen bidez jakinarazten dizut ondoren aipatzen diren datuak ez direla bete, edo gaizki bete direla:

- eu_NIF / CIF de la empresa

Horren ondorioz, eta 1988ko Maiatzaren 6ko Aginduaren 3.2. atalak xedatzen duena kontutan hartuz, jakinarazpen hau jasotzen denetik **HAMAR EGUN** balioduneko epearen barruan aipatutako **akatsak zuzentzeko** eskatzen dizugu.

Datu horiek behar bezala bete gabe aipatutako epea igarotzen bada, aurkeztutako komunikazioa egin gabetzat hartuko da.

Horretarako, nahikoa izango da dagokion formularioa behar bezala **betetzea**.

En relación a la Comunicación a la Administración de la Modalidad de Organización Preventiva y de Realización de Evaluación de Riesgos y Auditoría presentada en esta Delegación Territorial, con fecha **14/12/2017** y referente al centro de trabajo sito en **DOMI** (**Alegría-Dulantzi**), por la presente pongo en su conocimiento que se advierte la falta de cumplimentación o cumplimentación inadecuada de los datos que se relacionan:

- NIF / CIF de la empresa

Por la presente se le requiere para que de conformidad con lo establecido en el Art. 3.2. de la Orden de 6 de Mayo de 1988, proceda en el plazo de **DIEZ DIAS HABILES** desde la recepción de la presente notificación, a **subsanar** tales defectos.

Si transcurrido dicho plazo no se hubiera cumplimentado correctamente, la comunicación se considerará como no efectuada.

A tales efectos será suficiente **cumplimentar** correctamente el formulario correspondiente.

Vitoria-Gasteizen, 2017(e)ko Abenduaren 14 (e)an/En Vitoria-Gateiz, a 14 de Diciembre de 2017

*Sin./Fdo.: Á#lvaro Iradier Rosa*

**Enpresa** / Empresa: FUNCIONA SA